

WROCLAWEN EGONALDI ARTISTIKOA EGINGO DUTEN SORTZAILE HAUTATUEN
ZERRENDA ARGITARATZEN DUEN

EBAZPENA

OINARRIAK

2013ko abenduaren 30eko EHAAan, Wroclaw hirian 2014ko udan egonaldi artistiko bat egiteko hiru sortzaile aukeratzeko deialdiaren ebazpena argitaratu zen, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, 2013ko abenduaren 17koa.

Eskabideak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epeak amaituta, 2014ko Martxoaren 21ean, Etxepare Euskal Institutuaren web-orrian, onartu eta baztertuen zerrenda argitaratu zen.

Deialdiaren 8. artikulua dio eskabideak aztertu eta baloratzeaz Hautapen Batzordea arduratuko dela, eta 9. artikulua hautapen irizpideak zehazten ditu.

Artikulu hauei jarraiki, 2014ko Apirilaren 7an, onartutako 58 proiektuak aztertzeko Hautapen Batzordea bildu zen. Batzordeak proiektuak aztertu ondoren puntuazio altuena jaso zutenak, eta beraz, egonaldia burutzeko aukeratuak izan ziren sortzaileen zerrenda erabaki zuen.

Guzti hau dela eta,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Hautatuak izan diren proiektuak.

2014ko ekaina /uztailean Wroclaw-en 15-20 eguneko egonaldi artistikoa burutzeko aukeratuak izan diren 3 sortzaileak, honakoak dira:

EXPEDIENTE ZKIA	ESKATZAILEA	PROIEKTUA
2014-WROCLAW-0026	MAIALEN SARASUA OLIDEN	Wroclaw-Donostia zubirik zubi. (Ikusentzunezkoa)
2014-WROCLAW-0008	MATXALEN DE PEDRO LARREA	Hiri-Kit (Diziplina-anitza/arte eszenikoak)
2014-WROCLAW-0017	GOIATZ LABANDIBAR ARBELAITZ	Hala bazan...klik! (Literatura-argazkilaritza)

Bigarrena.- Deialdiaren 13. artikulua dioen bezala, hautatutako pertsonak 10 eguneko epea izango dute egonaldian parte hartu eta egonaldiaren baldintzak betetzen dituztela onartzeko, hautatuen zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik. Hala egiten ez badute uko egiten dutela ondorioztatuko da.

Hirugarrena.- Erreserban geratu diren proiektuak.

Deialdiaren 12. eta 14.artikuluak diote hautatuetako batek ukoa aurkeztu edo ordeztu beharra egonez gero, punturik gehien lortu duten hurrengo sortzaileek ordeztuko dituztela. Hauek dira hautapen batzordeak hautatu dituen erreserbako proiektuak:

EXPEDIENTE ZKIA	ESKATZAILEA	PROIEKTUA
2014-WROCLAW-0038	AINARA LEGARDON PEREZ	Piezas de arte sonoro (Musika)
2014-WROCLAW-0011	MIREN AGUR MEABE	Larrosaren zergatia (Literatura)
2014-WROCLAW-0025	AMAIA URRRA BONNAUD	Canciones de Trabajo (Performance)

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete interesatuek EEIko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko dagokion aretoan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bigarrena.- Ebazpen honek Etxepare Euskal Institutuaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita izango ditu ondorioak.

Donostia / San Sebastián, 2014ko apirilaren 11a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
MARIA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA.

